

20%

Informazio-gida

KB LANBIDE HEZIKETA 

KB Ostalaritza



JUSTIFIKAZIOA

Ostalaritza-establezimenduek negozio-eredua arrakastatsua izateko baldintzak bete behar dituzte.

Baldintza horien artean etiketa dago, funtsezkoa baita sukalde-prozesuen kontrolerako eta segurtasunerako.

Publizitatea funtsezkoa izango da negozioaren aintzatespenean eta zabalkundean arrakasta izateko.

Erosketa berdea elementu bereizlea izan daiteke gure negozioan, eta bezeroen eskubideak eta betebeharrak ezagutzeak kontsumo-gatazkak prebenituko ditu.

HELBURUAK

- Enpresa gisa ditugun eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea eta bezeroekiko gatazkei erantzuteko bideak ezagutzea.
- Lanbidebultzako eguneroko gatazkak konpontzeko trebetasunak eskuratzea.
- Elikagaien nahitaezko etiketak eta etiketa bereziak ezagutzeko eta horietako bakoitzaren informazio garrantzitsua identifikatzea.
- Elikadura-alergiak edo -intolerantziak dituzten pertsonentzako arriskua dakarten substantziak ezagutzea, baita bezeroei informazioa emateko aukerak ere.
- Salmenta-teknikak ezagutzea eta publizitate-kanpaina arrakastatsuak egitea.
- Erosketa berdeen sinboloak eta ontziek ingurumenean duten eragina ezagutzea.

EDUKIAK

- **Kontsumoari buruzko oinarrizko nozioak.**
 - Enpresek erabiltzaileen aurrean dituzten eskubideak eta betebeharrak.
 - Gatazkak konpontzeko bideak.
- **Elikagaiak etiketatzea.**
 - Ontziratutako elikagaien nahitaezko etiketatzea.
 - Elikagai freskoen etiketak.
 - Indikazio bereziak
 - Alergenoak.
- **Salmenta-teknikak.**
 - Marketin-estrategiak.
 - Saltokitik kanpoko publizitatea.
- **Erosketa berdea.**
 - Ontzi motak eta horien ezaugarriak.
 - Erosketa berdeko sinboloak. Esanahiak.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Aurretiko ezagupenak. Testa.
- Xahutzearen aurkako errezetak.
- Enpresa-eredu bat sortzea.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Erosketa berdea.
- Etiketak.
- Alergenoak.
- Kontsumoari buruzko oinarrizko nozioak.
- Publizitatea.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Negozio-idea gainerako taldeei aurkeztea, ebaluazio-errubrika baten bidez erakusketari puntuak emango baitizkiote.

OINARRIZKO KOMPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
- Teknologiarako kompetentzia.
- Arterako kompetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.

METODOLOGIA

- Lan kooperatiboa.
- Proiektu bidezko ikaskuntza.
- Thinking based learning.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Tableta. Internetarako sarbidea.	3 taldetan banatutako taldea (berdea, gorria eta urdina). 2. fasea Kontsumobideren zentroan egiten da. 1. eta 3. faseak, kolektiboaren beraren egoitzan.	1. Fasea: 6 ordu 2. Fasea: 4 ordu 3. Fasea: 5 ordu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.